

**2018ko IRAILAREN 27an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURAREN AKTA**

9 zk.

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2018ko irailaren 27an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez dira etorri	Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and.
Jarduneko idazkaria	Nagore Artamendi Garmendia and.
Jarduneko kontu-hartzailea	Itziar Kortabarria Garitano and.

Gai-zerrendan dauden gaiak aztertzen hasi aurretik, **alkate** jaunak eskatuta, minutu bateko isilunea egin dute Bilbon gertatutako emakume baten hilketa gaitzesteko.

Izan ere, Zarauzko Udalaren gaitzespen irmoena azaldu du Bilbon MAGUETTE MBEUGOU emakumearen hilketaren aurrean, eta bere doluminak eta elkartasuna adierazi dizkie familiari eta biktimaren hurbilekoei. Inoiz berriz gerta ez dadin.

Ondoren, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2018ko ABUZTUAREN 30eko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2018ko abuztuaren 27tik irailaren 21era.

Segidan, Alkatezak 2018ko abuztuaren 27tik irailaren 21era erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2018ko irailaren 3tik 17ra.

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko irailaren 3tik 17ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- ZARAUZKO UDALAK ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEAN ALDAKETAK. HASIERAKO ONESPENA.

2008I1330003 espedientea

2008ko uztailaren 16an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak ZARAUZKO UDALAK ETA BERE ERAKUNDE ATUNOMOEK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA onartu zuen, eta testu osoa 2008ko uztailaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (140 zk.) argitaratu zen.

2016ko martxoaren 31an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak Ordenantza horretan aldaketa batzuk onartu zituen, eta testu osoa 2016ko ekainaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (105 zk.) argitaratu zen.

Orain, Parekidetasun Departamentuak eta Gizarte Zerbitzuen Departamentuak proposamen bat aurkeztu dute ZARAUZKO UDALAK ETA BERE ERAKUNDE ATUNOMOEK

DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEAN aldaketa batzuk egiteko.

Bide batez, eta Zarauzko Udalak gaur egun Erakunde Autonomorik ez duela kontuan izanda, Ordenatza horretan erakunde autonomoei egiten zaizkien aipamenak ezabatzea komeni da, bai ordenantzaren izenburuan, baita artikuletan ere.

Horiek horrela, eta 2018ko irailaren 13an egindako bileran Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea ZARAUZKO UDALAK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEAREN ondorengo artikulua hauen idazkera berriari:

11. artikulua. Onuradunak.

EZABATU	IDAZKERA BERRIA
<p>Diru-laguntzen onuraduntzat joko dira horien egilespena sorrarazi zuen jarduera gauzatu behar duen, edo emakida legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona edo erakundea.</p> <p>Egoitza edo ordezkari itza iraunkorra Zarautzen duten pertsonak edo elkarteek eskuratu ahal izango dituzte diru-laguntzak, baldin eta Zarauzko Udalaren departamentuetako diru-laguntzak emateko oinarri bereziek bestelakorik ezartzen ez badute.</p> <p>Elkarteek eta fundazioek, diru-laguntzen onuradun izan ahal izateko, dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egon beharko dute.</p> <p>Onuradun izan ahal izango dira pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, ondasun-erkidegoak edonortasun juridikorik ez izan arren, proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzakeen, edo diru-laguntzaren emakida sortzen duen egoeran dagoen edozein ekonomia-unitate mota, beti ere deialdi bakoitzean aurreikusten bada.</p> <p>Diru-laguntza horien emakida ezin eskuratuko dute, indarrean den araudiari jarraiki, eskubide hori mugatuta edo ezabatuta duten pertsonak edo erakundeak. Halaber, ezingo dituzte diru-laguntzak lortu behin betiko ebazpen bidez eskubide hori ebazpenak erabakitako epean galtzera zigortutakoek ere, edo Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenean.</p>	<p>Diru-laguntzen onuraduntzat joko dira horien egilespena sorrarazi zuen jarduera gauzatu behar duen, edo emakida legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona edo erakundea.</p> <p>Egoitza edo ordezkari itza iraunkorra Zarautzen duten pertsonak edo elkarteek eskuratu ahal izango dituzte diru-laguntzak, Salbuespen gisa, udalerrientzat interesgarriak diren jarduera sozialek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta elkarte edo erakunde eskatzaileak Zarautzen ordezkari itza ofizialik ez izan.</p> <p>Elkarteek eta fundazioek, diru-laguntzen onuradun izan ahal izateko, dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egon beharko dute.</p> <p>Onuradun izan ahal izango dira pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, ondasun-erkidegoak edo, nortasun juridikorik ez izan arren, proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzakeen, edo diru-laguntzaren emakida sortzen duen egoeran dagoen edozein ekonomia-unitate mota, beti ere deialdi bakoitzean aurreikusten bada.</p> <p>Diru-laguntza horien emakida ezin eskuratuko dute, indarrean den araudiari jarraiki, eskubide hori mugatuta edo ezabatuta duten pertsonak edo erakundeak. Halaber, ezingo dituzte diru-laguntzak lortu behin betiko ebazpen bidez eskubide hori ebazpenak erabakitako epean galtzera zigortutakoek ere, edo Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenean.</p> <p>Halaber, diru-laguntza horien emakida ezin eskuratuko dute, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko udal-araudiari jarraiki:</p>

	<ul style="list-style-type: none"> - 26/2015 Lege Organikoak, uztailaren 28koak, ezarritakoari jarraikiz, sexu-delituengatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei. - Emakume eta Gizonen Benetako berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei. - Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38.artikulua). - Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).
--	--

20. artikulua. Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak

GEHITU
<p>o) Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko udal-araudiaren arabera,</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan komunikazioa modu ez-sexista eta barneratzailean erabiliko du. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko ditu; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatuko ditu. - Diru-laguntza justifikatzeko memorian sexuaren araberako datuak eman beharko ditu (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan). - Antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izango dira.

22. artikulua: Justifikazioa

EZABATU
<p>Nahi duten pertsonak edo elkarteek jarduera justifikatzeko epearen luzapen bat eskatu ahal izango dute, beti ere programa aurten hasia bada eta oinarri berezietan ezarritako epean amaitua ez bada; kasu horretan, justifikazioak aurkezteko epea jarduera amaitzen den hurrengo hilabetean bukatuko da.</p>

GEHITU
9. BERDINTASUN IRIZPIDEAK
<p>33. artikulua</p> <p>Diru-laguntzak baloratzeko irizpideetan, ondoren zerrendatuta dauden irizpideetatik gutxienez bi txertatu beharko dira:</p>

- Diruz laguntzen den proiektuak berariaz emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, eta / edo antolatutako jarduerak genero-ikuspegia edukitzea, kontuan izanda gizonen eta emakumeen egoerak, arazoak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla.
- Diru-laguntza jasotzen duten elkarten ardura-postuetan eta erabakitzeko organoetan emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40koa izatea.
- Diru-laguntza jasotzen duten elkarten osaeran emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40koa izatea.
- Zailtasun bereziak dituzten emakumeentzako, egoera zaurgarriagoan daudenentzako eta / edo diskriminazio-edo bazterkeria-egoeran daudenentzako proiektuak edo jarduerak izatea (emakume migratzaileak, zaintzaileak, etxeko langileak, dibertsitate funtzionala dutenak...).

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, oinarrien aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldaketaren testu osoa argitaratu beharko da.

5.- ZARAUZKO UDALAREN KONTRATU ETA DIRU-LAGUNTZA GUZTIETAN TXERTATU BEHAR DIREN BERDINTASUN IRIZPIDEAK ONARTZEA.

2017I1230029 espedientea

2017ko maiatzaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Udaltzarrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantza onartu zuen. Behin betiko testua 2017ko abuztuaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da, eta 2017ko irailaren 8an sartu da indarrean.

Ordenantzaren bigarren eta hirugarren Xedapen Iragankorretan, Udalaren kontratu eta diru-laguntza guztietan berdintasun-irizpideak txertatzeko betebeharrak ezartzen da, eta horretarako epea zehazten da; Ordenantza indarrean sartzen den egunetik hasi eta hamabi hilabeteko epea, hain zuzen ere:

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bigarrena. Berdintasun-irizpideak aplikatzea kontratu eta lehiaketa publikoetan.

1. Ordenantza hau indarrean sartzen den egunetik hasi eta hamabi hilabeteko epean, Zarauzko Udaleko organo eskudunak, Parekidetasun Departamentuaren proposamenez, instrukzioak emango dituzte gizon-emakumeen arteko berdintasun-irizpideak txertatzeko Zarauzko Udalaren kontratu- eta baldintza-plegu, administrazio-baldintza eta zehaztapen teknikoetan, Zarauzko Udaleko kontratazio-prozedurak abiarazten nahiz euren parte hartzen duten Zarauzko Udaleko gobernakide, teknikari nahiz zuzendari guztiek betearazi ditzaten.

.../...

Hirugarrena. Irizpideen aplikazioa diru-laguntza eta hitzarmenei.

1. Ordenantza hau indarrean sartzen den egunetik hasi eta hamabi hilabeteko epean, Zarauzko Udaleko organo eskudunek, Parekidetasun Departamentuaren proposamenez, instrukzioak emango dituzte berdintasun-irizpideak txertatzeko diru-laguntzetarako oinarrietan eta deialdietan, baita berdintasun-irizpideak betetzen direla egiaztatzeko prozeduretan ere.

Bestalde, Ordenantzaren X. Kapitulua barne- eta kanpo-informazioa eta komunikazioaren ekoizpenaren eta kudeaketaren inguruan hainbat obligazio ezartzen ditu, besteak beste:

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 26. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzeari kalterik egin gabe, Zarauzko Udalak ez du hizkera eta irudi sexistarik erabiliko edozein informazio, komunikazio, idatzizko dokumentu, ikonografia eta euskarri ekoiztean eta kudeatzean, zuzenean edo pertsona fisiko edo juridiko edo erakundeen bitartez ekoitziak.

9. Enpresa sustatzaileak informazio, komunikazio eta ikonografia ez-sexista nahitaez erabili beharra ezarri beharko da kontratazio-pleguetan eta edozein kontratu-motatan edota lankidetzeta-hitzarmenetan.

Beraz, Ordenantzak jasotzen dituen agindu horiek betetzeko, honako lanketa hauek aurreikusi ditu Udalak aurten: kontratueta eta diru-laguntzetan berdintasun-irizpideak txertatzea; eta komunikazio ez-sexista eta barneratzailea erabiltzeko irizpideak jasoko dituen langileentzako gida egitea.

Aipatutako xedapenak gauzatzeko lanak ELHUYAR AHOLKULARITZA enpresari esleitu zizkion Udalak, Alkatetzaren 2017ko abenduaren 14ko 1760 Dekretuaren bidez.

Kontratueta eta diru-laguntzetan berdintasun-irizpideak txertatzeko proposamenak landu dira. Udaleko departamentuetako arduradunekin, zinegotziekin eta Berdintasun Kontseiluko kideekin kontrastatu eta euren ekarpenak jaso dira.

Ekarpen guztiak jaso ondoren, behin betiko proposamena osatu da honako dokumentuetan:

- Zarauzko Udaleko kontratueta txertatzeko berdintasun-klausulak (I dokumentua).
- Norgehiagoka-araubidez ematen diren Zarauzko Udaleko diru-laguntzetan txertatzeko berdintasun-irizpideak (II dokumentua).
- Zarauzko Udaleko diru-laguntza zuzeneta eta izenduneta txertatzeko berdintasun-irizpideak. (III dokumentua).
- Norgehiagoka-araubidez ematen diren diru-laguntzetan eta diru-laguntza zuzeneta eta izenduneta txertatzeko berdintasun-irizpideak -betebehar espezifikoak departamentuka-(IV dokumentua).
- Diru-laguntzetako eranskinak: zinpeko aitopenen eta memoria-txostenaren eredia (V dokumentua).

Hori guztia kontuan hartuta eta Herritarren arloko informazio-batzordearen irizpena ikusi ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Zarauzko Udalaren diru-laguntza eta kontratu guztietan txertatu behar diren BERDINTASUN IRIZPIDEAK onartzea, zerrendatutako I-V bitarteko dokumentuetan jasoak.

6.- LIZARDI KALEKO 9ko LOKALAREN KALIFIKAZIO JURIDIKOA ALDATZEA. HASIERAKO ONESPENA.

2018I1350002 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Botoak alde:	13	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 2 Irabazi Zarautz)
Botoak aurka:	6	(6 EH Bildu)
Abstentzioak:	—	

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Lizardi kaleko 9ko behe-solairuan dagoen higiezina desatxikitzeko espedientea izapidetu du Udalak. Gaur egun, Udal Ondasunen Inbentarioan jabari eta zerbitzu publikoko ondasun gisa sailkatuta dago.

Zarauzko Udalak bere ekonomia eta gizarte garapenerako beharrezkoak diren zenbait ekitaldi bultzatu ditu. Inbertsio horiek finantzatu ahal izateko, Ogasun eta Finantzetako arloak proposatu du Lizardi kalea 9ko behe solairuan dagoen higiezinaren kalifikazio juridikoa aldatzea, ondoren saldu ahal izateko. Lokalari orain arte eman zaion erabilera bertan behera geratuko da, eta higiezinaren etorkizunari buruzko proposamen motibatua egin da, hark dituen ezaugarriak kontuan izanda.

Udal Zerbitzu Juridikoek egindako txostenean ondorioztatu dute desatxikitzeko proposamena legezkoa eta bideragarria dela.

Antolakuntzako informazio-batzordeak, 2018ko abuztuaren 9an bilduta, aldeko irizpena eman zuen.

Azaldutako guztiagatik, Toki-erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduak 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, 13 zinegotzik alde bozkatuta eta, beraz, legezko gehiengo osoaren “quorum”-arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Hasierako onespena ematea honako finka honen kalifikazio juridikoaren aldaketari, zerbitzu publikotik desatxiki eta ondare-ondasuneko kalifikazioa emateko:

- 100-05801 matrikula: Lizardi kaleko 9ko behe-solairuko lokala.
- Azalera: 38 m².

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hilabeteko epean, interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Desatxikitzearen aurka erreklamaziorik aurkeztu ezean, kalifikazio juridikoaren aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe.”

7.- IRABAZI ZARAUTZ UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– **Zarauzko estropadetan gizonezkoentzako eta emakumezkoentzako sariak berdinak izatea.**

2018O0010013 espedientea

Segidan, IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako lehenbiziko proposamena irakurri dute. Honela dio:

ZARAUZKO ESTROPADETAN GIZONEZKOENTZAKO ETA EMAKUMEZKOENTZAKO SARIAK BERDINAK IZATEA

Udako programaren barne, Zarauzko Udaleko Turismo departamentuak, abuzturo Zarauzko Estropadak (Eusko Label Ligaren barne) antolatzen ditu.

Estropada honetarako aurriztuen diren sariak oso desberdinak dira gizonak eta emakumezkoen kasuan:

Aurten, gizonezkoen kasuan hauexek izan dira lehenengo hiru klubentzat:

UNTZIA	SARIA
HONDARRIBIA	6.570 €
URDAIBAI	5.850 €
ORIO	5.130 €

Emakumezkoentzat 3 aldiz txikiagoak dira:

UNTZIA	SARIA
SAN JUAN	2.640 €
ORIO	2.160 €
ARRAUN LAGUNAK	1.680 €

Desberdintasun honek ez dauka justifikaziorik gaur egun, batez ere, kontuan izanda Kontxako ikurrinaren lehenengo aldiz parekatu direla emakumezkoen eta gizonezkoen sariak.

Emakumezko eta Gizonezkoen arteko parekidetasuna sustatzeko III Planan, aurreikusten da emakumezkoen kirol arloan parte hartzea sustatu behar dela, eta uste dugu argi dago partaidetza hori berdintasunean izan behar dela, beraz,

PROPOSAMENA

Horregatik guztiagatik, Irabazik Zarauzko Udaleko Udaltzari proposatzen dio:

AURRENA.- Urtero antolatzen den Zarauzko Estropadetan gizonezkoentzako eta emakumezkoentzako sariak berdinak izatea datorren urtetik aurrera. Horretarako behar diren kopuruak aurreikusiko dira Udaltzari Aurrekontuetan.

BIGARRENA.- Akordio honen berri ematea Eusko Label ligari eta Euskotren ligari.

Udal taldeek beren iritzia eman ondoren, proposamena bozkatzeari ekin diote. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	19	(aho batez)
----------------	----	-------------

Beraz, Udaltzarrak ERABAKI DU, aho batez, transkribatutako mozioa ONARTZEA.

8.- IRABAZI ZARAUTZ UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Genero-ikuspegia udal aurrekontuetan txertatzea.

2018O0010014 espedientea

Era berean, IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako bigarren proposamena irakurri dute. Hona hemen testua:

GENERO-IKUSPEGIA UDAL AURREKONTUETAN TXERTATZEA

JUSTIFIKAZIOA

Udal gobernu baten gastua ez da neutroa generoari dagokionez. Horregatik, genero-ikuspegia udal aurrekontuetan zeharka sartzea ez da bakarrik "aurrekontuen

dokumentazioan islatzea Zarauzko Udalak genero ikuspegiko politikekin duen konpromisoa aurrekontuen dokumentazioan islatzen ahalegintzea”, 2018ko aurrekontuetan ikus dezakegun bezala.

Aitzitik: genero-ikuspegiari erreparatzen dioten udal aurrekontu batzuek lotura estua izaten dute emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunarekin; horrela aitortzen du instituzioak dagoen desberdintasuna; horrela konprometitzen ditu desberdintasuna ezabatzeko baliabide publikoak.

Azken finean, baliabideak zeri egotzi begirada kritiko batekin aztertzea; emakumeengan eta gizonengan izan dezakeen eragina kausitzea –egoera desberdinetatik abiatzen direla ahazteke–, eta politika publikoetan ahalik eta eraginkortasun handiena lortzea, genero-berdintasuna dela helburu.

Badakigu aurrekontu publikoak politika ekonomikoaren eta sozialaren erramintak direla, herritarren ongizaterako eta herriaren garapenerako lehentasunak islatzen dituztela; baita giza eskubideen alorrean udalek duten konpromiso maila ere. Ildo horretatik, garrantzi handia dauka baliabideak banatzeko moduak, genero-desberdintasunak zuzendu eta konpentsatzeko baldintza egokienak sor daitezela.

Genero Ikuspegia duen Aurrekontuak lagundu egiten du, bai genero-berdintasunean aurrera egiten, bai emakumeen eskubideak lortzeko bidean ere. Horretarako, beharrezkoa da zer esku-hartze egin behar den identifikatzea emakumeen behar espezifikoerantzuteko, genero-desberdintasunen arrakalak ixteko eta bazterkeria ezabatzeko. Halaber, garrantzitsua da genero-ikuspegiko aurrekontuek prozesuaren fase guztiak hartzea kontuan: aurrekontuak prestatzea, lantzea eta esku-hartze publikoen eragina neurtzea. Azkenik, hau da genero-ikuspegiko aurrekontuan aintzat hartzen den beste alderdi nagusietako bat: zergak biltzean gizonen eta emakumeen artean dagoen aldea.

Nazioarteko araudiei dagokienez, Nazio Batuen esparrua da –eta, zehatzago, NBERen Emakumeen Agentzia– tresnak bideratzen dituen aurrekontu-araudiek genero-berdintasuna eta emakumeen kontrako diskriminaziorik eza aintzat har dezaten. EAren lege-esparruari dagokionez, emakumei eta gizonezkoerantzuteko buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.1. artikulua zera jasotzen du: “Euskal herri-aginteez modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua”.

Amaitzeko, udal jarduera guztietan, genero-zeharkakotasunean aurrera egiteko kontuan hartu behar da Emakumeen eta Gizonen arteko Parekidetasunari buruzko III. Udal Plana (2016-21), lehenengo ardatzan, Gobernantza; udal-aurrekontu guztietan genero ikuspegia txertatzea.

Genero berdintasunean aurrera egitea da proposamen honen xedea; horretarako, beharrezkoa da Udalak gogoeta sakona egitea berdintasunaren inguruan eta aldaketak egitea baliabide ekonomikoak egoteko prozeduretan, genero-ikuspegia zinegotzi-ordezkaritza eta sail guztietan eta aurrekontu-prozesuaren fase guztietan aplikatzeko.

PROPOSAMENA

Horregatik guztiagatik, Irabazik Zarauzko Udaleko Udaltzaria hertsatzen du Gobernu Taldea honetara behar dezan:

1. Ebaluazio-txosten bat egitea, udalaz kanpoko eta independentea, 2014tik 2018ra bitarteko udal aurrekontuak genero-ikuspegitik sakon aztertzeko. Hala, 2019ko aurrekontuak hobetzeko oinarriak jarriko dira.
2. Genero-ikuspegia udal arlo guztietan metodologikoki sartzea udal aurrekontuak lantzeko prozesuaren fase guztietan txertatuta: planifikazioa, martxan jartzea eta ebaluazioa.
3. Genero-ikuspegia kontuan hartzen duten aurrekontuei buruzko formazio- eta sentsibilizazio-plan bat diseinatzea, arloetan aurrekontuen ardura duten guztientzat.

Eztabaida amaitutakoan proposamena bozketan jarrita, emaitza hau izan du:

Botoak alde:	8	(6 EH Bildu, 2 Irabazi-Zarautz)
Botoak aurka:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Beraz, adierazitako botoekin, Udaltzariak ERABAKI DU transkribatutako mozioa ATZERA BOTATZEA.

9.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

— **Hondartzetako sorospen zerbitzuak Foru Aldundiko kudeaketara pasatzea eskatzeko mozioa.**

2018O0010015 espedientea

Ondoren, EH BILDU udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute. Hauxe da testua:

Hondartzetako sorospen zerbitzuak Foru Aldundiko kudeaketara pasatzea eskatzeko MOZIOA

Jakina da Gipuzkoako hondartzetako sorospen zerbitzuak, beste zenbait zerbitzuekin batera, hondartza horien Udalek ematen eta ordaintzen dituztela. Eurek ordaintzen dute erabiltzaile gehienak udalerrikoak ez badira ere, maiz euskal herrikoak edo atzeritarrak. Herri horietariko asko, gainera, txikiak dira, aurrekontu zein finantziabide mugatuak dituzte eta hondartzen mantenuak gastu handi bat suposatzen du horietan biztanleko.

Aurreko guztiagatik EH Bilduk ondorengo mozioa aurkezten du udaltzariak aztertu eta hala badagokio onartu dezan:

1.- Zarauzko Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, hondartzetako sorospen zerbitzua kudeatzen duten udalokin elkarlanean, Gipuzkoako hondartzetako sorospen-zerbitzuak Aldundiko kudeaketara pasa daitezen, behar diren gestioak aurrera eramateko.

2.- Zarauzko Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gipuzkoako hondartzetako sorospen-zerbitzuen kudeaketa aurrera eramateko behar diren kontratu edo/ta hitzarmenetan, Erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzeko 11/2014 Foru Araua ezartzeko. Besteak beste, klausula sozialak kontratu zein hitzarmenetan ezarriko direla bermatuz.

Udal taldeek proposamenaren inguruko iritzia eman dute eta, ondoren, mozioa bozkatzeari ekin diote. Hona hemen emaitza:

Botoak alde:	8	(6 EH Bildu, 2 Irabazi-Zarautz)
Botoak aurka:	11	(9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Horrenbestez, botoen gehiengoarekin, Udalbatzarrak ERABAKI DU transkribatutako mozioa ATZERA BOTATZEA.

10.- ESKARI-GALDERAK

Gai-zerrendako puntu honetan gai hau izan dute hizpide:

- Udalak, Euskara Departamentuaren bidez, euskararen alde egindako lan ona, baina euskararen presentzia urria departamentu batek antolatutako ikastaroetan; eta alkate jaunari eskaria berriro horrelakorik ez gertatzeko.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, gaueko bederatziak eta hamarreen; eta nik, jarduneko idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.